

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Ribaguda herrian kokatutako 1.poligonoaren 2030A eta 2031 zenbakigarren lursailetan kokatutako makaldiak moztea

Espediente-zenbakia: AO-A-2019-0026

Eskatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Ribagudako Administrazio Batzarrak Arabako Foru Aldundiarekin, 284 eta 288. zenbakiarekin, hitzarmendutako makaldiak moztuko dira, zorriek arboladia kaltetu dutelako. Zadorra ibaiaren bi ertzeetan egingo da mozketa, 1,57 ha.tako azaleran.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Erribera BeitiakoUdalan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 14a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGIRRE ORCAJO